

hondo-hondotik

Mikel Ezkurdia

(Kazetaritzako lizentziaduna)

Nik leporatzen diot

Hilabetetan oinaze latzak pairatu ondoren azkenean 2000ko urrian kolitis ultzeraduna atzeman ziotenetik bi urte baino gehiago pasatu direlarik, ha maika aldiz erietxeetan egoera larrian ingresatu behar izan ondoren, ebakuntza ikaragarri gogor batean este zati bat erauzi diotelarik eta beste este zati bat erauzteko beste ebakuntza ikaragarri gogor bat egin behar diotelarik, azken urte luzean senide eta lagunak lekukotasunen arrastoari jarraiki Bautista Barandallaren egoeraren okertze, larriagotze, ahitzearen berri izaten ari garen honetan, bere senitartekoek era guztietako pasabide guztietan milaka kilometro egin eta milaka ate jo ondoren gaudenean gaudela, Euskal Herriko hormetan begiratzen gaituen argazki-garrasi salatari eta krudelak hunkituta, inpotentziaren amorruan eta zerbait gehiago egiteko gauza ez izatearen koldarkeriaren lotsan itotzen ari naizelarik, segundoz segundo burutzen eta burura eramaten ari den krimenaren inpunitatea, isiltasuna alegia, hausteko edo gutxienez urratzeko idatzen dut. Eta salatzen dut, eta leporatzen diot:

– Zaragozako espetxeko medikuari: profesionaltasun eza, kode deontologikoa urratzea gaixoaren babes ezaz baliatu izanaren larritasun gehigarriarekin, eta ondorioz, Barandallaren egoera zein gaixotasunaren bilakaera larriaren erantzule eta eragile zuzena izatea; presoak oinaze bizitan hilabeteak eta hilabeteak itxoin behar izan zituelako beharrezkoak ziren proba medikuak egin arte, behin gaixotasuna atzeman ondoren protokoloak ezarri jarraipena eta berrikuspenak egin ez zituelako, lehenengo ebakuntzaren ondoren ezinbesteko elikadura jarraipena eta ingurune egokia bermatu ez zuelako.

– Zaragozako espetxeko zuzendariari eta zerbitzu buruari, eta luzapenez, espetxeko zuzendaritza orokorrari: presoaren egoeraren erantzule eta eragile zuzenak izatea maila gorenean; espetxeko medikuaren gaineko arduradunak direlako eta une oro egoeraren berri izan dutelako, espetxetik erietxerako trasladoak tortura baldintzetan ematea ahalbidetu dutelako, gaixotasunaren artapen egokia oztopatu dutelako (elikadura, garbitasuna, konfiantzako medikuen artapena...).

– Trasladotan parte hartu duten guardia zibil batzuei: presoaren egoera larriaz trufatzea, ustezko segurtasun neurrien aitzakian baina horretarako inongo beharrik izan gabe doako sadizmoz jardutea eta oinazea nahita areagotzea.

– Zaragozako Miguel Servet erietxean ar-

tatu zuen mediku taldeari eta zuzendaritzari: profesionaltasun eza, kode deontologikoa- ren urraketa, utzikeria eta gaixoa indefentsio egoeraren aurrean babestu beharrean egoera hori areagotzea; ebakuntza aurretik beharrezko proba guztiak behar bezala egin ez zizkiotelako, ebakuntzaren ondoko artapena zein berrikusketak eraginkortasunez egin ez zituztelako, trasladoetako baldintza gizaga-beak eta espetxeko egoera (garbitasuna, elikadura...) eritasunaren zainketarako erabat desegokiak izanda, bai ebakuntza baino lehen bai ebakuntzaren ondoren eta baita aldiari aldiari jasan dituen larriagotze krisien ondotik ere presoaren espetxera bidali dutelako, medikuaren kontsultetan

zainketa lanak egiten zituzten polizia aurreaurrean izatea onartu dutelako, zainketa lanetan aritzen ziren poliziek presoaren zegoen gela barruan zigarrokinak erretzea onartu dutelako, gaixotasun infekziosoak zituzten beste bi presorekin gela berean eta inongo babes neurrik gabe izan zutelako.

– Zaragozako espetxe zaintzako epaileari: bere egitekoaren (presoaren eskubideen zaintza) perbertsioan jardutea presoaren eskubide eta osasun egoeraren kaltetan, espetxeko zuzendari eta zerbitzu buruarekin batera erantzule eta eragile partekatu gorena izatea, presoaren senideak iraintzeko borondatez aritzea, gezurra esatea, hau guztia egoeraren xehetasunen jakitun izateak erantsi larritasunarekin; lege presoaren eskubideen zainketaren erantzule delako, ondorio de- generatiboen berri izanda «heriotza egoerarik» aurreikusten ez zela ebatzi eta presoak espetxean jarrai zezan erabaki zuelako.

– Iruñeko espetxe zaintzako epaileari: espetxean egotearen ondorioz eta honekin zuzenean lotuta mediku jarraipen desegokiaren ondorioz Bautistaren osasun egoeran gertatzen ari den okertze, larriagotze eta gaixotasunaren hedapenaren (ondorioak gibelera, begietara, larru azalera eta bizkarrezurrera zabaltzen ari dira) erantzule eta eragile zuzena izatea maila gorenean ondoko larritasun gehigarriarekin, gaixoaren bilakaera osoa eta beraz okertze progresiboaren berri zuzena izanda egoera konpontzeko bere esku dauden neurrik hartu ez izana. Presoa Iruñeko erietxeetan ingresatuta izan denean Espainiako Poliziak senitartekoei bisitak egi-

teko jarritako oztopoak moztu ez izanaren ardura, medikuaren bisitetan polizia gela berean eta dena entzuten egotearen erantzukizun gorena eta honekin batera mediku artapen ezegokian erantzukizun partekatua izatea; zainketa lanetan aritu diren poliziak inpunitate osoz senitartekoak eta presoaren mehatxatu dituztelako, medikuaren eta gaixoaren arteko harremanetan bigarren honen duintasunaren zein pribatutasunaren aurkako atentatuak egin dituztelako, guztiaren berri izan duela-

– Iruñeko espetxeko zuzendariari eta zerbitzu buruari: presoaren osasun egoeran gertatzen ari den, okertze, larriagotze eta gaixotasunaren hedapenaren erantzule eta eragile zuzena

izatea espetxe zaintzako epailearen maila berean eta arrazoi berberengatik.

– Erietxeetan zaintza lanetan aritu diren polizia batzuei (bereiziki irrati bidezko komunikazioan *Bufalo* ezizenez deitzen zuenari): presoaren mehatxatzea, senitartekoak mehatxatzea, presoaren zegoen gelan zigarrokinak erretzea, Iruñeko espetxeko zuzendariak emandako aginduei kontra eginez senitartekoaren bisitak oztopatzea.

– Iruñean presoaren artatu duten bi mediku taldeei eta bi erietxeetako zuzendariari: kode deontologikoa urraketa larria, profesionaltasun eza, osasun egoeraren berri emateko txostenak idazterakoan berandutzea eta utzikeria temerarioz jokatzeko, artapen desegokia eta gaixoa presoaren izateagatik bereizkeriaz artatzea; beharrezkoak ziren berrikusketak eta jarraipen proba guztiak egin ez dizkiotelako, presoarekin hitz egiten zutenean poliziak bertan izatea onartu dutelako, ohean etzanda dagoenean ere presoaren eskuburdinez lotuta egotea onartzen dutelako, presio polizialaren aurrean mediku eta osasun zainketaren arduradun izanda dituzten eskumenak presoaren duintasuna zein osasun eskubidea babesteko erabili ez dituztelako, txosten medikua idazterakoan izugarri berandutu direlako, euren erantzukizun larria saihesteko medikuak gaixoaren «espetxeratze egoeran, txostenen ondorioetan... zerikusirik ez dutela, medikuak direla eta kito» esateak erietxera joaten den beste edozein gaixo artatzen duten baldintza berdina-berdinartatzen ez izanaren erantzule are argiagoak egiten dituztelako.

– Iruñeko espetxeko hezitzaileari, apaizari, psikologoari eta funtzionarioei: horrearen agertoki honetan funtzionario agindupeko baina aginduen betetzailer txintxo izatea eta euren begien aurrean egiten ari den krimenari isiltasunaren estalkia ematea.

– Preso politikoen sakabanaketa planifikatu, bultzatu eta egikaritu zuten alderdi politikoei (zehazki PSOE, PP-UPN, EAJ-PNV, EA eta IUri); aipatu gertakari zein ondorio guztiguztien erantzule politikoren goren-gorenak izatea; presoaren alderdi horien erabakiz sakabanatu zituztelako, presoaren sakabanaketak izango zituen ondorioez ohartarazita erabaki zutelako aipatu politika indarrean jartzea eta babestea, hamar urtez baino gehiago erabateko babesa eman diotelako, denbora honetan presoaren eta senitartekoaren aurka egin diren milaka bidegabekeriak isilarazteko ahal- legin guztiak egin dituztelako, sakabanaketaren alde egiteko jarri zituzten bitartekoak eta ahaleginekin alderatuta euren bultzatu neurri bidegabe horren aurka noizean behin (Batera plataforma eta gutxi gehiago) egindakoak oportunismo iraingarria baino zerbait gehiago direla sinesgarria ez delako.

– Presoaren mediku eta abokatu taldeari: fatalismoaren aurrean etsipenez jokatzeko; Zaragoza eta Iruñeko medikuak epaitegie- tan salatu ez dituztelako, lehenengo-lehe- nengo unetik 92. artikulua eskatu ez zutela- ko, espetxe zaintzako epaile, espetxeetako zuzendari zein zainketetan parte hartu duten polizia eta guardia zibilen aurkako salaketa bide guzti-guztiak agortu ez dituztelako, on- doko aringarriarekin, baina egoera zurrizten ez duena hala ere: bide horien guztien antzu- tasun juridikoaren jakitun izatea.

– Gu guztiok, nigandik hasita: gaur arte artiku- kulu hau idatzi ez izana, egoera puntu honeta- raino heltzen utzi izana, Euskal Herria hamar- kadetan espetxeratze, tortura, gerra zikin, kontrol, jipoi, xantaia ekonomiko eta beste hainbat bidegabekeriaren lekuko izan den arren, eta izan delako, horrelako krimenetara ohitzeko inongo eskubiderik ez dugulako.

Besarkada bat Bautistaren familiari, mai- tasunez, bihotz-bihotzez. Sakabanaketaren ardatzaren inguruan hezuramamitzen den izaera juridiko-politiko-kartzelario-institu- zionalak munstro hiltzaile eta irense horren aurrean, estatuen espetxe terrorismo- aren aurrean zein askoren indiferentzia kaf- kiarraren aurrean duintasun eta maitasun ikasgai paregabea eman digulako. Eskerrik asko zuei, eskerrak zuei. Bautista, eutsi goia- ri!, osasuna eta askatasuna!

Hezkuntzan ere erantzun beharra

(Aurreko orrialdetik dator)

rago ere beste lege bat eta beste bat aterako dutela konturatu gabe.

Aipatutako hau guztia Hezkuntzari dagokion kontua bada ere, ez dut uste nik arazo isolatua denik. Azken urteotan,

Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren aurkako eraso andana handi bat abian jarri du eta gurea ez da bakarra. Hortxe dugu euskararen aurkako eraso, gure hizkun- tzari benetako ofizialtasuna ukatzen diona (Hego Euskal Herriko bi gobernu autono- mikoen laguntzarekin, Osakidetza kasu);

euskal sindikatuek hainbeste eskatu duten esparru ekonomikoaren aurkakoa; euskal selekzioak sortzearen aurkakoa; gizarte- an egiten duten erakundearen aurkakoa (AEK, Zumalabe fundazioa...); erakunde politikoen aurkakoa, herri gisa dagozkigun eskubide zibilen aurkakoa... Estandako guz- tiagatik uste dut nik Hezkuntzan ere erant- zun beharra daukagula. Helburua zain dugu: geure Hezkuntza Sistema eraikitzea. Oharra: artikulua honek Hego Euskal Herria

hartzen du, egoera desberdina bada ere, bi gobernu autonomikoei antzeko jokatzeko baitute, geurea sortu eta defendatu behar- rean, Espainiakoa hartzen baitute eredu- tzat. Bestalde, ez dut ahazten Ipar Euskal Herriko egoera, gurea baino askoz larria- goa; han, ez euskara, ez euskarazko irakas- kuntza ez dituzte aintzakotzat hartzen. Lerro hauen bidez nire elkartasuna geure Hezkuntza Sistemaren alde lan egiten ari diren lankideekiko.